


Igerilari onenak Igarondon

Euskadiko Kopa gaur bukatuko da ▶ 6




Gaur amaituko da Titirijai; lau saio ikusteko aukera izango da Tolosan

ARRAKASTA ▶ Indiako 'Rajhastan-en festa' lanak arrakasta izan du; Asvinenearen lana ikus daiteke ▶ 7



Indiako Pitara Putli txotxongilo taldearen *Swaagat (Rajhastangen festa)* lana Beotibarren. OLAIJA ESKITXABEL



NOELIA LATABURU

Baserriak turistez beteta daude zubi honetarako

TOLOSALDEA ▶ Landa turismoko etxeek arrakasta dute; katalanak eta euskaldunak dira gehienak; lasaitasun bila datoz ▶ 4-5

JOXE AGUSTIN OLASAGASTI ▶ TABERNARIA

«Gaur egun gazteek ura eta sagardo asko edaten dute»

Tolosan denbora gehien martxan daraman taberna da Zumeta ▶ 2-3



Errementari, 38 • TOLOSA • 943 11 80 77

TOLOSA ▶

Bergaran irabazita, lidergoan jarraitzen du

Tolosak 2-0 irabazi zuen atzo ▶ 6



LANDARRI, S.L

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

- | | |
|---------------------------|--------------------------|
| Kanposantuko Lanak | - Eraikuntza ezberdinak |
| - Ehorzketak | - Hilobien apainketa |
| - Lurpetik ateratzea | - Hilariak |
| - Gerakinen lekualdatzea | - Panteoiak |
| - Gerakinen errausketa | - Hilobiak |
| - Errausketa zerbitzua | - Estelak |
| - Hilerriaren proiektuak | - Fotozeramikak |
| - Hilerriaren eraldaketak | - Estampaziozko teknikak |

Santa klara, 1 behe - TOLOSA

Tel./faxa: 943 67 01 14 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa, 9 behe - OREETA - ERRETERIA

Tel.: 943 34 04 67 • Faxa: 943 51 31 41

www.landarri.com • landarris.l@terra.es



BA AL DAKIZU
ZER DEN
ziber
ileapaindegi
BAT?

UZTURRETIK ▶
RAMON OLASAGASTIPuntuak
gidari
abilentzat

Puntukako gida baimena edo karneta jartzekotan diren honetan, ez ote zaie bururatu gure agintari txit gurenei hutsen bat egiten duen txoferrari puntuak kentzea bezala, gidari ereduagari eta abilei puntuak ematea. Beren kontagailuan puntu erantsi batzuk eduki ditzaten edo. Adibidez, Maxi parean laguna ikusi eta zebra bidearen erdi erdian tronpo ikusgarria egin eta autoari buelta osoa eman zion hark merezi ditu dozena erdi bat puntu gutxienez. Hori autoaren kontrola hori! Laguna bezala inguruko guztiak ere txundituta utzi gintuen; sehaskatxoan zihonan haurra ere esnatu egin zen frenu hotsarekin.

Tolosako Rondillan, edo Ibarrrako Euskal Herria kalean, ia kinta sartzean pasatzen diren Raikkonen horiek ere merezi dute puntuaren bat ematea. Jakin egin behar da gero autoa abiadura horretan eramaten, noiznahi bazterretatik ateratzen diren oinezko eta autoei begirik kendu gabe. Ez didazue ukatuko, gainera, zirrara berezia sortzen ez duenik tuboskape zabal horien arrantzak eta euren musika aparailu potenteen burrunbak. Puntuak bat bederen beharko lukete aurreko autoaren ipurdia miazkatzen joatea gustuko duten horiek ere: etzazuela pentsa, ez da baxterre erraza halako abiaduratan autoa autoaren kontra pega-pegata eginda joatea. Badu meritu. Askotan, baldarren bat jartzen zaie aurrean, juxtu aurreratzen direnean, eta largak emanez ohartarazi beste erremediorek ez dute izaten.

Elur denboraldia hastear da. Pirinioetatik bueltan, bata bestearen atzetik autoak aurreratzen doazen gidarien abilezia zer esan; lauzpabost puntu bai, eman beharko lizkiekete denboraldia amaitzen denean. Esako urtegi bihurgune zabaletan, han aurre-aurrean doazela ikusten dituzunean haien esalomeko teknika txalotzeko gogoia ere jartzen zaizu.

Zubi luze honetan autoarekin kontuz ibiltzeko esatera nindon, baina zertarako, konturatzen bazarete gero eta gidari ereduagari gehiago dabilten gure errepedetan.

GUTUN@K ▶

Hamar hilabetez
Internetik gabe

2004ko otsailaren 10az geroztik Interneterako konexiorik gabe dago ikastetxe hau.

Elkarri pelota ederki pasa, hamaika konponbide agindu, hitz polit ugari esan, baina ezer konpondu ez. Horixe jaso dugu bitarte honetan Gasteizko Hezkuntza Sailetik nahiz Donostiako Delegaritzatik; hori eskaini digute behin eta berriz beren enpresak gorapatzen hain iaioak diren Euskaltel eta Telefonikak.

Nahiko zintzo jokatu dugu orain arte, zintzoegi agian, konfidantza jarri da beti emandako hitzetan eta pazientzia handia erakutsi da ikastetxearen aldetik, baina gaur ahaztuak, baztertuak eta engainatuak sentitzen gara.

Korreio elektronikotik datoren hainbat eta hainbat informazio jaso gabe gaudenean—Hezkuntza Sailak bide hau erabiltzen du informa-

zioa igortzeko—, Hezkuntza Saileko lanak herriko KZguretik edo etxetik betetzen ari garenean, edozein ikaslek eskura dezakeen informazioa guretzat ezinezkoa denean, aho bateko esaldiak guretzat ustelak eta faltuak direnean, ezin gara isilik egon.

Hainbat proiektutan parte hartzeko aukera galdu dugu eta bitartean eman diren berrikuntza eta aurrerapenak entzungo edo ikusiko ditugu nonahi: ikastetxe guztiak zein dotore hornituak dauden, sarean bilduta eta digitalizatu-ta, XXI. mendeko hezkuntza noruntz eta zein ziur bideratuta dauden, ikasleak zein ondo prestatuta eta informatizatuta aterako diren...

Amezketako herria eta eskola baztertua daudela jakin dezazuen yu dugu komunikabideetara, eta hemendik aurrera arazoa konpondu bitartean, horrela hasi beste erremediorek ez dugu, edo bide berriak eta desatxegingoak jorratuko ditugu ez baitugu zakurraren ipurdia izan nahi. Amezketako eskolak merezi

du! Gure ikasle eta seme alabek merei dute!

ZUMADI ESKOLAKO ORDEZKARITZA
ORGANO GORENA ▶ AMEZKETA

Euskara, bestela
ez gara

Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, egun berean ospatzen denez, bada ezinduen egunarekin lotu duenik ere. Ez zait aldrebesa iruditzen. Eta ideia hori aprobetxatuz, Nafarroako txoko honetatik idatzita, herenegun Hego Euskal Herrian, ospatzen ziren Nafarroaren Eguna eta Euskararen Nazioarteko Eguna, lotuko nituzke bai batean, zein bestean, maila handi eta esanguratsu baten ikuspegitik, ezintasuna ezaugarritzat hartu baitaiteke.

Modu askotan ospa daiteke, eta ospatzen dugu. Ospakizun hauek aldarrikapenaren ikutuarekin ulertzen ditut nik eta are gehiago egun berean, *Egunkaria*-ko lagunek auzipe-tze autoa jaso behar izan dutenean. Ezker Abertzaletasuna

eta euskararen aurkako asmo-arekin lotzen baititut hauek, eta hauek bezalako beste hainbat.

Egun hauek behintzat, esan ohi den moduan, zer pentsa eman beharko ligukete. Lehenengoari dagokionez, Nafarroaren Eguna hain zuzen ere, familia nafar askoren etxeko bazkari bereziak, Iruñean batek eta beste antolatutako ekitaldi edo manifestaldiak edota, hango eta hemengo abesbatzen emanaldi bereziak kenduta, ekitaldi ofizialak besterik ez dira geratzen. *Nafarroaren* kutsua izateaz gain, bertan, askok behinik behin, euskaltasunaren eta zehazki euskararen aurkako sentimendua dutenak biltzen dira. Aurtengoan, hasieran, azkenean, noiz ez dakit baina zenbait komunikabidetan azaldu dutenez, euskarazko hitz bat edo beste esan zuten, nahiz eta gero urtean zehar *egurra* batatu handik eta hemendik. Batzuk, liluratuak agian, besteak aztoratu samar, baina beste askori ez digute ziria sartuko. Itxura besterik ez, eguneroko

JOXE AGUSTIN OLASAGASTI ▶ TABERNARIA

«Gure adinekoak izango
gara azken txikiteroak;
gazteek ez dute jarraitzen»

Tolosan taberna beteranoena da Zumeta;
pertsonei ezaguna da oso bere umore eta jatortasunagatik;
Realzale amorratua, txirringuzalea, pilotazalea...

JOXEMI SAIZAR

1946an ireki zuten bere gurasoek —aita Donostiako Loiolakoa, ama Arantzakoa (Nafarroa)— Zumeta taberna, Agustinean itxi zenetik Tolosako beteranoena. Joxe Agustin eta arrebak arduratzen dira gaur egun taberna-jatetxeaz. Elkarriketaren zehar mahai gainean egunkari piloa —zalea da, «denek gauza bera jarri arren»— daude bistan. Eta tabernako bezero eta Agintari kaletik pasatzen diren guztiak agurtzen ditu Joxek.

Nolatan etorri ziren gurasoak Tolosara?

Soldaduskako lagun batek leku egoki bat zegoela esanda. Aurretik ardo almazena zen

hau, Ezeiza familiarena, eta lehenago astoak uzteko tokia. TAO ez da oraingo asmakizuna. Loiola auzoko Etxarri tabernan aritzen ziren gurasoak hona etortzea erabaki arte.

58 urtetan asko aldatuko zen tabernaren martxa.

Bai, baina Jaungoikoari esker, lanik ez zaigu inoiz falta izan. Garai batean porroi txiki asko edaten zen. Gaur egun gazteek ura eta sagardo asko edaten dute. Kopa gutxiago hartzen da. Gure adinekoak izango gara azken txikiteroak. Gazteek ez dute jarraitzen, eserita, tertulian, musika entzuten, pasatzen dute denbora.

Astelehenetan baserritar ugari etortzen zen.

Hori galdu da. Leizta eta Araitz

bailarako jendea ere horrela galdu genuen. Hamaitetakoak egitera eta bazkalitera jende asko etortzen zen.

Beteluko 'Petrikiloa' ere urte askotan etorri izan da Zumetara.

40 urtetan, aurrena aita zena eta gero haren semea, astelehenetan eta larunbatetan etortzen zen autobusez. Inguruko sendagile guztiak pasa ondoren etortzen ziren jende asko beraiengana, baina haiek ere ez ziren Jainkoak. Hezurren kontuan oso onak ziren. Niri txonkatila sendatu zidaten. Realeko jokalaririk batzuk ere etorri izan ziren.

Nondik datorkizun Realeko zaletasuna?

Donostiarra naiz jaiotzez eta

gurasoek lan egiten zuten taberna Arkonadaren aitonarena zen. Beti estimatu dut Reala eta atzerrira joateko aitzakia izan da, bestela ez nituen Islandia, Suitza eta beste herrialdeak ezagutu. Suitza gustatu zait gehien, Euskal Herriaren antzekoa delako.

Eta jokalarien artean?

Gaur egungoetatik Labaka. Arkonada ere asko gustatzen zitzaidan. Eta herrikoak: Arregi, Loren, Jauregi... Jauregik odol beroegia du, nerbio gehiegi, indarrean sartzen da.

Eta lehendakarietatik?

40 urte daramatzat Realeko bazkide eta lau lehendakari ezagutu ditut: Orbegozo, Alkiza, Uragana eta Astiazaran. Lehenengoak izan da jatorrena.

Bartali Peña sortu zenuten tabernan. Nolatan?

Lagun baten osaba apaiz zegoen Erroman. Garai hartan —1950-60— Coppi eta Bartali ziren txirringulari onenak eta honen izena hartu genuen porroi txikia botatzen genuen 25 lagunek. Hori jakinda, Bartali bera behin etorri zen tabernara, Jose Mari Anzaren bidez, Euskal Herriko Itzulian zuzendari bezala zegoela. Baserritar bat garbantzak jaten ikusi eta hark ere hura nahi zuela esan zuen. Harremana mantendu genuen postaz.

Nondik zaletasun hau?

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

errealitatea bestelakoa baita. Behin eta berriz, komunikabi-deetan nafarrok agertzen edo salatzen ditugunaz gain, adibide moduan minduta baina gozoz aipatu nahi dut euskaraz ez dakien, edo hemen euskaraz bizitzeko asmoa genuenik ere ez zekien, hemengo Osasun Etxera etorri den sendagilearen kasua. Sendagilea izateaz gain, zentruko zuzendaria egin dute. Eta hau guztia Nafarroan zonifikazio eta euskararen ezagutza eskatzen den dekretuari esker. Dena den lehen aipatu dugun moduan, hamai-ka adibide gure *lingua navarrorum*en aurkako erasoak azaltzeko.

Euskarari buruz ari garenez, bigarren ospakizuna, euskararen nazioarteko eguna, alegia, aipatu gabe ezin utzi. Honetarako bidalitako leloa; «Esanak esan, euskara: badugu hitz, badugu giltza», ez da makala, benetan. Euskara zabaldu eta bai Espainian, bai European aintzat hartu behar dela aldarrikatu nahi da. Izaera ofiziala hartu behar duela behin eta berriz aipatzen da. Baina bitar-

tea, eta ez egun honetan soilik, galdera eta kezka handiak sortzen zaizkit honen inguruan. Batetik, urtero, eta batere orijinaltasunik gabeko kezka, zer gertatuko da aurrerantzean? Zertan gauzatuko dira asmo horiek? Makina bat asmo, proiektu, plan... mar-txan jarri da, baina adituek diotenez, administrazioak ezartzen dituen planak neur-tuz gero, urte gutxitan, astero, beste hizkuntzak galten diren moduan, gureak ere bide hori hartuko du. Lan egin eta egiten dela ezin uka, baina zenbaite-tan alde egin den bezala, aurka ere egin dela onartu behar da. Bestetik, lurraldetasunari be-gira, beste maila batean sartu-ko ginatke, baina benetako kezka sortzen duena ere, hor-txe dago. Europa, mundua... aipatzea ongi dago eta beharrez-koa, ziur aski, baina mundu hor-rretan gu, adibide moduan, hurbilago ez al gaude? Beste era bateko kritikak beste bate-rako utziz, baina oso argigarria gerta daiteke aipatzea, EITB ikusteko eta entzuteko, zailta-sun handiagoa izaten dugula

edota izateko arriskua dugula Argentina baino. Nafarroan bezala, Iparraldean ere. Honek guztiak, nahiz eta plan, asmo eta beste hamaika esperimen-tu egin, erakusten digu Euskal Herri osoan «asmo onenak» izanda ere, egoera diglosikoaan murgilduta gaudela, praktikan erdararen nagusitasuna ageri-koa da eta bitartean, euskarak itxura mundua besterik ez du hartuko. Horregatik beste neu-ri ezberdinekin batera, diskri-minazio positiboan benetan bultzatzen dituzten neurri poli-tikoak hartu behar direla uste dut. Egun, adibide moduan, ez dut uste toki guzietarako ele-bitasuna baliogarria denik, eta Jaurlearitzak eta honen ond-orioz menpeko eta ez-menpeko erakunde, talde... bide berdi-netik jotzen dute. Prozesu ba-tean, fase ezberdinak ezarri behar dira eta haueetan sailka-tu behar dira errepikatzen di-ren «asmo zintzoak», baina le-hentasunak ezarrit. Eta lehen-tasunezkoa da euskararen presentzia ziurtatzea eta orain-goaz gain areagotzea. Honaino Administrazioak, orohar, duen

ardura azaldu nahi izan dut, baina holakoetan beti azpima-rratu nahi izaten dut norbana-koaren eginbeharra aurrekoa bezain baliagarri, bateragarri eta beharrezkoa dela. Batak, estatua, izaera ofiziala, eta horrelakoak eskaini eta eman behar dizkio, baina zertarako hitzunik ez badago. Ardura gu-rea ere bada. Askotan kulpabi-lidadea bilatu eta atxikitu nahi izan zaigu, ez dut uste hala de-nik, hein handi batean behin-tzat. Hala ere, denon arteko lana behar duela izan garbi dut. Ingurunean, ingurune hurbilean, kalean, dendetan, eskolako atarian... gaztelera gero eta gehiago nabaritzen dut. Bestaldetik, zonaldean Kon-stituzioak bultzatutako Bai Euskarari proiektuak ustekabe-ko emaitza onak izan ditu. Beraz, askotan bezala; gazi-gezak.

Dena den, Euskararen Egu-nerako eta gainerako egun guz-tietarako esaldi bat aukeratzeko-tan, orain airean daudenen artean Euskara Zerbitzuak au-keratuko nuke: Euskara, beste-la ez gara.

MIKEL ILLARREGI ▶ ARESO

INKESTA ▶ ZER GUSTATZEN ZAIZU HITZA-TIK?

MALENTXO ARROSPIDE

LIZARTZA



«Inguruko infor-mazio sarea osa-tu du, gertuko al-bisteen eta eki-taldien berri ematen du, gertutasuna es-kaintzen du. Eskualdeko al-biste eta gertakizunak jakite-ko ezinbesteko tresna da».

MARGARI ETXETXIKIA

LEITZA



«Bertako berri ja-kiteko balio du, euskaraz infor-matzeko dagoen aukera bakarra delako eta oso erraz irakur-tzeko modukoa gainera. Hitza oso arina egiten zait irakur-tzeko».

ARITZ LARRETA

AMEZKETA



«Herriz herriko informazioa ematen duelako eta etxe-koek euskaraz irakurtzeko aitzakia delako, gurasoek ba-tez ere. Orain arte euskaraz irakurtzen ohitu gabe zeudelako».

JUANITA OIARBIDE

ALEGIA



«Ondo etortzen da hemen ingu-ruko berri jakite-ko. Egunkaria hartzen dudane-an, beti ematen diot pasada bat. Askotan nire herriko in-formazioari begiratzen diot aurrena eta gero bestea».

MADDI UGARTE

TOLOSA



«Oso ondo dago herriko berriak ematen dituelako eta gainera euskaraz. Horrela denetaz informatuta gaude. Nik uste dut jendeak oso gustura hartzen duela. Hori ikusten dut nik behintzat».

AMAIA SARASOLA

VILLABONA



«Oso ondo dago Hitza. Gure es-kualdeko herri txikietako be-riak ematen ditu eta orain arte ez genuen horretarako aukerarik. Gainera, beste egunkariekin konpara-tuta, oso irakurterreza da eta hori eskertzekoa da».

PERTSONALKI ▶

▶ Donostiako Loiola auzoan jaioa ▶ 1946ko abuztuaren 24an ▶ Urtebeterekin Tolosara etorri zen ▶ Eskolapioetan ikasi zuen ▶ Donostian harri bitxietan eta Insalusen egin du lan tabernan hasi aurretik ▶ Realzalea, pilota eta txirrindularitza ere gustuko ditu.

Realeko jokalaria bat? Labaka, Kortabarriaren estilokoa da. **Txirrindularia?** Olano, Beloki... **Parrandarako leku bat?** Iruñea sanferminetan. **Jateko?** Mariskoa, haragia, gozokiak...

REALA

«Beti estimatu dut Reala eta atzerrira joateko aitzakia izan da, bestela ez nituen Islandia, Suitza... ezagutuko»



Otaño eta Mendiburu lehengu-suak ditut. Tourra ikustera joan izan naiz Pirinioetara eta Alpeetara. Merckx izan da one-na garai guztiak kontuan har-tuta.

Pilota duzu beste zaletasuna. Praktikatzan txarra naiz, baina oso zalea. Aita pilotaria zen. Eta Antton Maiz Arantzakoa da, amaren baserriaren auzokoa. Gizon ona da, asko estimatzen dut.

Duela lau urte berritu zenuten taberna. Zer nahiago, ordu-koa ala oraingoa?

Zaharrak bere xarma zuen, baina berria lanerako eroso-agoa da.

Gustuko menu bat aukeratu ezazu.

Hasieran pikatzeko gauza txiki desberdinak gustatzen zaizkit, gero mariskoa eta haragia —gehiegi beharbada— gusta-tzen zaizkit. Eta postretarako gozoa. Familian oso gozozale-ak gara. Azukrearen orratza a tope daukat! Orain zaindu egin beharra daukat.

Parranda egiteko aukerarik izaten al da?

Herriko jaietan ezin dugu, lana egin behar izaten dugulako ta-bernan. Baina urtero joaten naiz Iruñeko sanferminetara Peña Unioneko lagunekin. Ho-riek dira onenak!



JOXEMI SAIZAR

ARESO ▶

Motozale bat
hil da A-15
autobian,
bidetik aterata

ERREDAKZIOA

Atzo arratsaldeko 17:53ean istripu bat izan zen A-15ean, Andoain eta Irurtzun arteko Leitzarango autobidean, 139. kilometroan, Donostiara ko norabidean, eta bere ondorioz hildako bat izan zen. Moto bat bidetik atera eta hesiaren kontra jo zuen. Bere gidaria —30 urteko gizon bat, Donostiakoa— une berean hil zen.

Iruñeko Ospitale Anatomiko Forensera eraman zuten gorpua. Nafarroako Foruzaingo ari da istripuari buruzko ikerketa egiten.



Euskal Herriko igerilari onenak Igarondon

TOLOSA ▶ Euskal Herriko Igeriketa Kopa burutzen ari da asteburuan Tolosako Igarondo igerilekuan; bertan, Euskal Herriko lehenengo mailako igerilari hoberenek hartzen dute parte. Atzo lehenengo probak egin zituzten eta gaur jarriko diote amaiera txapelketari. Goizean

10:00etan eta arratsaldean 16:30ean hasiko dira probak. Igarondok, Tolosa CFk eta Urpekoak-ek sortu berri duten Tolosaldea IKT taldeko igerilariak ikusi ahal izan dira txapelketan; goi mailako txapelketetan parte hartzen duten lehenengo aldia da... O. ESKITXABEL

TOLOSA ▶

Lasaitasuna
nagusitu da
zubi luzearen
eraginez

Apaingarriko landareen postuetan lehenengo pazko loreak ikus zitezkeen

PABLO ALBERDI

Atzoko eguna lasaia izan zen. Zubi luzearen eragina nabaria izan zen; salmentak horren araberakoak izan ziren.

Produktuen eskaintza zabalagoa izan zen. Apaingarriko landareen postuetan hainbat berrikuntza aurkeztu zituzten; lehenengo pazko loreak aurki zitezkeen salgai.

Perretxiko asko egon ez arren, espezie ezberdin ugari ikus zitezkeen. Berezitasun gisa, trikloma eta pieazul perretxiko urdinska aipa daitezke.

TOLOSA ▶ FUTBOLA ▶

Tolosak hiru puntuak ekarri
ditu Bergaratik nagusitasunez

0-2 irabazi zuen atzo futbol taldeak eta lehenengo postuan darrai indartsu

IMANOL GARCIA

Beste behin garaipena lortu du Tolosa futbol taldeak. Azkeneko bost partidak jarraian irabazi ditu, horietatik hiru etxetik kanpora. Saikapenean behetik hasita hirugarren zegoen Bergara zuen aurkari atzo eta 0-2ko emaitzarekin garaitu zuen, nagusitasunez.

Partida guztian zehar nagusitu zen Tolosa. Lehenengo zatitan pare bat aukera garbi izan zituen, baina markagailua ez zen mugitu bigarren zatia arte. Atsedendialdiaren ondoren Bergarakoak erasora atera ziren eta horretaz baliatu ziren

tolosarrak kontraeraso batean lehenengo gola eginez. Lasak lortu zuen 0-1koa, Pradosen pasea aprobetxatuz. Bergara saiatu zen, baina egia esan, partida guztian arrisku gutxi eraman zuen Mujikaren atera.

Tolosa bigarrenaren bila zebilen eta Pradosek aukera ezin hobea izan zuen area txikian: bultzatu bakarrik egin behar zuen baloia eta langaren gainetik bota zuen. 80. minutuan etorri zen azkenik bigarrenengo gola. Alboko sake batean, Lasak buruz atzera bota eta zelaiaren minutu gutxi zeramatzan Aranguren bidali zuen baloia sareetara.

BERGARA ▶ 0

TOLOSA ▶ 2

Bergara. Sesma; Igartza (Gonzalez, 74m.); Ormaetxea; Agirre; Berraondo (Unai, 65m.); Lete (Imanol, 85m.); Otero; Zubikarai; Garin; Mujika (Ibañez, 40m.); Arana (Bastiur, 85m.).

Tolosa. Mujika; Gorka; Aimar; Patxi; Garmendia; Romero; Orue; Garagarza (Aierbe, 80m.); Regillaga (Aranguren, 70m.); Lasa (Elola, 86m.); Prados (Illunbe, 88m.).

Golak. 0-1: Lasa (60m.); 0-2: Aranguren (80m.).

Txartelak. Tolosako Gorkak, Patxi eta Pradosek jaso zuten txartel horia. Bergaran, berriz, Aranak jaso zuen.

Emaitza honekin indartsu jarraitzen du lehenengo postuan Tolosak. Atzetik dituen Ordiziak eta UPVk ere irabazi dituzte bere partidak eta dagoeneko ikusten da pixkanaka zein

talde izango diren hirugarren mailara igotzeko lehian. Orain arteko hamalau jardunaldietan ikusitakoagatik, Tolosak lehia horretan izango diren taldeetako bat izan behar du.

PREZIOAK ▶

Gaia	merk.	gares.
Bertako produktak		
Onttoa	20,00	24,00
Trikloma	15,00	-
Pieazul	15,00	-
Ziza horia	18,00	-
Usoa	5,00	-
Gaztaina	2,00	3,00
Errezil sagarra	2,00	5,00
Irasagarra	3,00	6,00
Ardi gazta	9,00	15,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Kalabaza	1,60	3,04
Arbi morea	4,00	-
Aza	2,50	3,00

Berdura plaza

Lilia	1,20	-
Pazko lorea	6,00	8,00
Konifera	6,00	-
Izpilikua	4,00	6,00
Krabelina	4,80	-
Ziklamena	3,50	6,00

hitza

lagunen
txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

TOLOSA ▶ TITIRIJAI 2004



Musika eta dantza uztartu zituzten atzoko emanaldian. O.ESKITXABEL

Rajhastan-eko kolore eta musika festa

Gaur da Indiako Pitara Putli taldearen emanaldia ikusteko azken aukera

IMANOL GARCIA

Indiako ipuin herrikoia islatzen dute Pitara Putli taldeak *Swaagat (Rajhastan-en festa)* ikuskizunean. Benetan da ikusteko talde indiar honek taularitzen dituen koloreak, bai dantzariak bere jantziekin, bai ateratzen dituzten txotxongilo dantzariak, eta noski, kartoizko zalditxoaren gainean igotako sujaleek.

Musika ez da atzean geratzen ikuskizun honetan. Zuzenean aritzen dira musikariak, Indiako musika herrikoia joaz. Batez ere perkusioa da nagusi eta festa giroa sortzeko danbor eta perkusio tresna ezberdinak erabiltzen dituzte. Musika tresnak hauek, entzuteko ez ezik ikustekoak ere badira.

Familia guztiari zuzendutako emanaldia da. *Swaagat*-ek ongietorria esan nahi du eta horixe da festa honen esanahia. Izan ere, aitzinean, erregeak bere erreinua bisitatzen zutenen, jendeak omenezko ongie-

GAUR ▶

Kultur Etxea. 12:00. Damiet Van Dalsum (Holanda), *Bubbel-Bubbel-bos*.

Leidor aretoa. 17:00 eta 19:00. Titiriteros de Binefar (Aragoi), *Retablo de Navidad*.

Beotibar pilotalekua. 17:30 eta 20:00. Pitara Putli (India), *Swaagat (Rajhastan-en festa)*.

Kultur Etxea. 19:30 eta 22:30. Asvinenea (Euskal Herria), *Farsantres*.

torria egiten zion eta ohitura hori gerora festa herrikoia bihurtu da.

Aste guztian zehar izan da emanaldia Beotibar pilotalekuan. Hala ere, oraindik badute aukera ikusi ez dutenek emanaldiaz gozatzeko, gaur eman-go baitituzte festa koloretsu honen azken bi saioak.



‘Apartheid’ egoera salatuz

TOLOSA ▶ Tolargi eta Tolosa Gasak antolatuta Amaro zuzen Eguberrietako argiak piztera joan zen Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea. Bertan, *apartheid* egoera salatuz kontzentrazioa burutu zuten hainbat herritarrek 2.500 *tolosar desagertuta? Herriaren hitza errespetatu* lelopean. Ondoren, Bildarratz udal demokratikoen alde eta ilegalizazioaren aurka idatzitako gutuna eman zioten. HITZA



Udazkeneko egitasmoak

ORENDAIN ▶ Kultura Batzordeak udazkeneko kultur egitasmo zabala antolatu du; horren harira, atzo hainbat ekitaldi egin zituzten herrian. Haurrek begirik kendu gabe jarraitu zuten Zirika Zirkus taldearen ikuskizuna: malabareak, akrobazia, magia... egiteaz gain, abestiak kantatzen ere egon ziren gerturatu zirenak. Udaletxetik Eltxo elkartera joan ziren ondoren, gaztain erreak jatera. Helduek, gauean, Bidearte baserriko Kaietana Etxeberriak prestatutako mondejo ezagunak eta ardikia dastatu zituzten Eltxo elkartean; haurrek bezala, postre gisa gaztainak jan zituzten. O.ESKITXABEL

begi.tolosa
bistan

TOLOSA BEGI-BISTAN
TOLOSALDEKO AIREZKO IRUDIAK
Aurkezpen irekia

Abenduak 9, osteguna, 20:00etan, Leidor aretoan.
(Gonbidapenak Tolosako Kultur Etxean)

50 eitb

OTEGI
eraikuntzak, s.l.

Promozioa eta eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - beheka
20400 TOLOSA
Faxa: 943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 00 68 00
 - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 - ▶ DYA: 67 25 36
 - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aiztondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur.** Morant, R. Zabalarreta 1 (Tolosa). 943 67 38 49.
- Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza) 112**
- Bihar.** Olarreaga, A. Korreo 2 (Tolosa). 943 67 01 28.
- Gimeno, A. Elbarren, 52 (Leitza). 112**

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18. tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldeko hitza.info
- Villabona-Aizt.** 687 41 00 22. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info
- Anoetaledea.** 687 41 00 22 anoetaledea@tolosaldeko hitza.info
- Ibarraldea.** 687 41 00 32. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
- Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko hitza.info
- Leitzaldeko.** 687 41 01 18. leitzaldeko@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

- Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33.
- Ume zaintzailea.** Bi ume zaintzeko emakumea behar da. 615 72 73 84.
- Irakaslea.** Lenguaje eta matematika klase partikularrek emateko irakaslea behar da, Batxilergoko azken mailan. 639 96 71 30.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. El filling es así antzerkia Gaztekean. 19:00.
Alegia. Iruñako Gaztekearen desalojoari buruzko DVD-a ikusgai Gaztekean. 21:30.
Areso. Euskararen Eguna. 12:15etik hasita, kalejirak, umeentzat jostaketak, pilota partidak... 17:30etik aurrera XI. Trikitilari Txapelketa eta trikiti festa.
Elduain. Bertso saioa pilotalekuan; Egaña, Elustondo, Gorostidi eta Loizisaletxe. 18:00. Doakoa.
Tolosa. 16:30etik 20:30era Gazte Topagunea, Kultur Etxean.
Tolosa. Laskorain Ikastolan Batxilergoa bukatu dutenek titulua Orixe Institutuan jaso dezakete NAN eramanda.

KIROLA

Leitza. Arkixkil futbol zelaian (Leitza). Aurrera-San Inazio, futbol partida. 16:00.
Berrobi. Frontenis txapelketako finalerdiak. Binakakoak, 15:30ean eta 16:30ean; banakakoak, 17:30ean eta 18:00etan.
Tolosa. Igeriketako Euskadiko Kopa 10:00etan eta 16:30ean. Igarondo igerilekua itxita egongo da.
Tolosa. Profesionalen arteko pilota partidak bihar Beotibarren. 17:00etan. Unanue-Eskudero Berasaluze VIII.a-Pinedoren aurka; Barriola-Nagore; eta Koka-Bengoetxea Agirre-Albizuriren aurka.

ZINEMA

Tolosa. Alien vs. predator filma, bihar Leidorren. 17:00, 19:30, eta 22:30.
Villabona. Haurrentzako Pinotxo filma. 17:00. Gurea aretoan. Sarrera 2,5 euro.

Gipuzkoak badu peña laranja

IRURA ▶ Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldearen peña aurkeztu zen Enara tabernan; aurrerantzean bertan izango du egoitza



Peñako kideak Euskaltel-Euskadikoekin; Haimar Zubeldia autografoak sinatzen eta Miguel Madariagak Maite Bengoetxeari mailota oparitzen. i.a.

IMANOL GARCIA

Euskaltel-Euskadi taldea ezaguna da nazioarteko txirrindularitzan atzetik eramaten duen zalegoagatik, batez ere Tourreko Pirinioetan. Baina badu ere beste berezitasun bat: munduko txirrindulari talde bakarra da peñak dituen. Badago beste peñarik bizikletaren munduan, baina txirrindulari jakin baten inguruan osatutakoak, eta ez talde guzti baten izenean.

Atzotik, Gipuzkoak badu

Euskaltel-Euskadiren peña bat. Irurako Enara tabernan izango du egoitza eta bertan egin zuten aurkezpena. Orain arte, beste hiru peña ditu txirrindulari taldeak: Bizkaian bi, Bilbon eta Zamudion, eta Cuenca —Espainia— bestea.

Peña Enara Euskaltel-Euskadiren aurkezpenera talde laranjaen kideak joan ziren: Miguel Madariaga, taldeko managerra; Julian Gorospe eta Gorka Gerrikagoitia zuzendaria; eta taldeko bost txirrindulari gipuzkoarretatik hiru, Hai-

mar eta Joseba Zubeldia usurbildarrak eta Markel Irizar oñatiarra.

«Pozgarria da Gipuzkoan peña bat sortzea. Guretzat errekonozimendua da eta oso gauza berezia», azaldu zuen usurbildar zuzendariak. «Gainera gure jantziak egiten dituen enpresatik hirurehun metrotara izango du egoitza». Taldeak duen zalego zabalari buruz galdetzean, «asko animatzen gaituzte», azaldu zuen managerrak, «eta horrek ere presio handia sortzen digu, za-

letuei garaipenak ematea exijitzen digulako».

Haimar Zubeldiari egokitu zitzaion autografo gehien sinatzea. «Pozgarria da peñak sortzea, atzean jendea dugun seinala», azaldu zuen usurbildar zuzendariak. Bere anaia eta Markel Irizar ere pozten ziren bere herrialdean peña bat sortu delako. Bukaeran, autografo eske zegoen haur multzoa gustura jarri zen argazkian, Miguel Madariagak peñako lehendakari Maite Bengoetxeari mailot laranja oparitzen zion uanean.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Irati. Gaur 6 urte. Zorionak, aita, ama eta Jonen partetik; muxu handi bat.



URTE ASKOAN

Korkisyon Florenza (Villabona). Gaur 90 urte. Zorionak familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
 HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!